

Martutene

IRUTXULO

azaroan hainbat ekintza egingo dira Gaztelekuan. Batetik, hilaren 17an, ostirala, "Donostia munduen artean" ekimenaren haritik, antzezlan bat jokatu da, arratsaldeko 20.00etan. Bestalde, hilaren 23an eta 29an, euskal musikak azken urteetan

**Hilaren 23an,
Mikel Markezek
gidatutako
entzunaldiak
hasiko dira**

Euskal musikari errepassoa



Euskal musikari buruzko solasaldi eta entzunaldietan, 60ko hamarkadatik hona egindako ibilbidea aztertuko da.

egindako ibilbideaz jardungo dute bertan. Mikel Markez musikari oreretarrak gidatuko ditu euskal musikaren inguruko solasaldi eta entzunaldiak. Azkenik, hilaren 25ean, Martute-

neko gazteek egun pasa egingo dute Azkoitian. Besteak beste, "puenting"-a egiterik izango du-te. Gogoan izan txangorako izena emateko azken eguna hilaren 20a dela.

Odol ematea
Hilaren, 22an, arratsaldeko 18.00etatik aurrera, odol ematea egingo da Martuteneko Gaztelekuan.

Parte Zaharra

IRUTXULO

Santa Zezilia abesbatzak kontzertua emango du azaroaren 19an Udalbatzar Aretoan. Xabier Mugerzak zuzendutako Parte Zaharreko abesbatza hau Txistulari Bandarekin ariko da emaldiaren bukaeran. Kontzertua eguerdiko 12.00etan hasiko da.

Santa Zezilia abesbatza Inocencio Gaztelumendik sortu zuen XX. mende hasieran.

**Abesbatza
eta Udal
Txistulari
Banda batera
ariko dira**

Santa Zeziliaren kontzertua



Irudian, abesbatzako partaideak. Guztira 30 bat lagun ari dira bertan.

Ordutik hona, Santa Zezilia-koek hamaika sari irabazi dituzte han eta hemen. Gaur egun 30 bat lagun ari dira abesbatzan, eta bertan kantatu nahi duen edonori atea

zabalik daude. Santa Zezilian aritu nahi duenak astelehenean Abuztuak 31 kaleko 26. zenbakiko lehen solairua azaldu besterik ez du. Ez-tarria gozatzeaz gain, lagu-

narte polita topatuko du bertan. Asteleheneroko entseia 20.00etan izaten da.

Era guztietako obrak

Igandeko saioak hiru zati izango ditu. Kontzertua Jose Ignazio Ansorenak zuzendutako txistularien eskutik hasiko da. Txistularien ondoren, Santa Zeziliako txanda iritsiko da. Kontzertuaren azkeneko zatian, Santa Zezilia abesbatza eta Udal Txistulari Banda elkarrekin ariko dira. Elkarlanean eskainiko dituzten obrak honako hauek dira: "Kantuz goizean" (Alexander Lesbordes), "Spring" (Thomas Nashe eta Roger Quilter), "Nirea izango zen" (Jose Antonio Artze eta Javi Busto), "Huinchahonal" (Waldo Aranguiz) eta "Atabala eta txistua" (Jose Luis Ansorena Miranda).